

## EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

## INFORMAZIO OROKORRA

<b>EGUNAK</b>	Azaroak 6 - 8 - 13 - 15	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	IVAPeko sotoko gelategia 26. gela (informatika gela) Donostia-San Sebastián kalea, 1 Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	20 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00 - 14:00
<b>ESKATZEKO AZKEN EGUNA</b>	Urriak 20	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Urriak 23 - 27
<b>IKASLE KOPURUA</b>	10 gehienez	<b>NORENTZAT</b>	EAEko herri-administrazioetako langileentzat
<b>IRAKASLEA</b>	Gorka Julio		

## ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU  
OROKORRAK**

Eguneroko jardunean eraginkorrago lan egiteko ingurune digitalak eskaintzen dituen baliabideak ezagutzea eta erabiltzen ikastea. Garrantzitsua da baliabide horiek nor bere egitea eta norberaren beharren baitan erabiltzea; nor bere ikas-alorra eta ingurune digitala aberastea eta estrategiak garatzea.

**HELBURU  
ZEHATZAK**

Ingurune digitalean informazioa kudeatzen ikastea.  
Bideo tutorialak, infografiak, aurkezpenak... egiten ikastea.  
Euskararekin lotutako aplikazioak erabiltzen ikastea (itzultzaileak, testu laburtzaileak).

**GAITASUNAK**

Informazioa arakatzeta, behatzea eta bilatzea.  
Informazioaren ebaluazioa.  
Informazioa babestea eta berreskuratzea.  
Egile eskubideak eta lizentziak.  
Eduki digitalak garatzea.  
Euskarazko baliabideak eta tresnak identifikatzea.  
Pentsamendu kritikoa eta hausnarketa.

## EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

#### METODOLOGIA

Ikastaroa aurrez aurrekoa izango da eta ikasleen benetako lan-jardun eta eguneroko beharretatik abiatuko dira zereginak. Teoria eta praktika uztartuko badira ere, praktika izango da ikastaroaren ardatz metodologikoa. Funtsean, eginez ikasiko dute ikasleek.

#### PROGRAMA

1. SAIOA: INFORMAZIOAREN KUDEAKETA I:
  - a. Eguneroko jardunari lotutako informazio-beharrak identifikatzea eta ingurune digitalean modu antolatuan adieraztea.
  - b. Datu eta eduki garrantzitsuak ingurune digitalean aurkitzea, bilaketa erraz zein aurreratuen bidez.
  - c. Eguneroko jardunari lotutako bilaketa estrategiak identifikatzea eta sortzea ingurune digitalean.
  - d. Eguneroko jarduna eraginkorrago egiteko nabigatzaileek eskaintzen dituzten pertsonalizazio konfigurazio aukerak ezagutaraziko dira eta nabigatzailea norberaren beharren baitan konfiguratzeko jarraibideak eskainiko dira.
  - e. Eguneroko jardunari lotutako sareko datu, informazio eta eduki digitalen fidagarritasuna eta seriotasuna kritikoki aztertzea eta ebaluatzea.
2. SAIOA: INFORMAZIOAREN KUDEAKETA II
  - a. Sareko edukietan topa ditzakegun egile-eskubide eta lizentzia-mota ezberdinak ezagutzea eta eduki horiek lizentzia motaren arabera nola erabil eta berrerabil ditzakegun jakitea.
  - b. Sarean topatutako datuak, informazioa eta eduki digitala antolatzen, biltegitratzen eta berreskuratzen jakitea.
3. SAIOA: EDUKIEN SORKUNTZA
  - a. Bideotutorialak, infografiak, aurkezpenak... ekoizten ikastea.
  - b. Aukera horiek baliatuz ekoizpen batzuk sortzea.
4. SAIOA: ETENGABE IKASTEN JARRAITZEKO NORBERAREN IKAS-ALORRAREN GARAPENA
  - a. Norberaren ikas-alorraz gogoeta egitea eta hura etengabe nola elika daitekeen jakitea.
  - b. Norberaren abiapuntuaz diagnosia egitea.

Euskaraz modu eraginkorragoan lan egiteko baliabideak ezagutzea (itzultzaileak, testu laburtzaileak, testu idatzitik ahotsera pasatzeko tresnak, ahotsa transkribatzeko tresnak...)

#### EBALUAZIOA

Ebaluazioaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete direla bermatzea.

#### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute. Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du

#### APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.



**EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN****ZIURTAGIRI DIGITALA**

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

**BAJA  
EMATEKO  
EPEMUGA**

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

195,30 €

**PREZIOA**

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena. EHAA, 2022ko uztailaren 8koa, 132. zk.

